GORABIDE
ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

boletín/aldizkaria
# berriak

MAYO DE 2013 | 2013KO MAIATZA
Nº 220 Zk.

Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com | www.gorabide.com
autogestores-gorabide.blogspot.com | tiempolibre-gorabide.blogspot.com | facebook.com/Gorabide | twitter.com/Gorabide

**INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA**

**Novedades de interés**
**Berri interesgarriak**
pg. 4 or.



**Aprobación de la Asamblea**
**Batzarrako onartzea**
pg. 6 or.



**Formación en lectura fácil**
**Irakurketa errazari buruzko formazioa**
pg. 7 or.

# Presentamos nuestro estudio de calidad de vida, en la Universidad de Salamanca




# Salamancako Unibertsitatean aurkeztu dugu gure bizi-kalitatearen azterketa




## Traslado de Futubide

La Fundación Tutelar Gorabide se traslada a la calle Andrés Eliseo de Mañaricua nº 14 del barrio de Miribilla, en Bilbao, pero mantiene el número de teléfono habitual: 94 424 55 62.

## Futubideren lekualdaketa

Gorabide Tutoretzako Fundazioa Bilboko Miribilla auzoko Andrés Eliseo de Mañaricua kaleko 14 zenbakira lekualdatu da, baina ohiko telefonoa mantentzen du: 94 424 55 62.



Mirko Gerolin eta Enrique Aja, Gorabideko Sail Teknikoko profesionalak

IRAKURKETA ERRAZA

Gorabidek eta EDE Fundazioak azterketa bat egin dute. Adimen desgaitasuna duen pertsona oro bere bizitzarekin gustura ote dagoen jakin nahi izan da. Emaitzen bidez, laguntza planak hobetzea lortu nahi da. Halaber, horien bidez, Gorabideren zerbitzuak hobetu nahi dira. Zerbitzu guztiek aplikatuko dituzte ikusi dituzten gauza onak.

# Gure bizi kalitateari buruzko azterketa aurkeztu genuen Inicon

*Adimen desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza zehaztu, planifikatu, zabaldu eta jarraipena egiteko aukera ematen du EDE Fundazioarekin batera egindako azterketak*

**Gorabideko Sail Teknikoko Enrique Ajak eta Mirko Gerolinek adimen desgaitasuna duten pertsonen bizi kalitateari buruzko azterketa egin zuten, EDE Fundazioko Ikerketa Sozialeko Zerbitzuko Ainara Canto eta Irama Vidorretarekin batera. Azterketa Salamancako Unibertsitatearen Komunitatean Integrazioko Institutuak (Inico) antolatutako Desgaitasunari Buruzko Ikerketaren Metodologia Eguneratzeari buruzko IX. Mintegian aurkeztu zen.**

**Zein izan da azterketaren helburua?**
Adimen desgaitasuna duten pertsonen bizi kalitatearekin loturarik handiena duten alderdi pertsonalak eta testuingurukoak identifikatzea izan da helburua, behar dituen laguntzak bideratu ahal izateko eta ongizatea eta bere bizitzarekiko gogobetetasuna hobetzeko, laguntza emateko plan pertsonalizatuaren bidez. Gainera, erantsitako datuen azterketa zerbitzuen hobekuntza bideratzeko informazioa da.

**Zelan egin da?**
Gencat eskalaren bidez neurtu da adimen desgaitasuna duten 232 pertsonen bizi kalitatea; horiek guztiak adindunak dira, eguneko zentroetako, egoitzetako eta Gorabideko etxebizitzetako erabiltzaileak. Aldagarrien arteko loturak identifikatzeko, batetik, alderdi pertsonalak izan dira gogoan, besteak beste, desgaitasun maila edo laguntzen premia, eta, bestetik, inguruneko alderdiak, besteak beste, erabiltzen duen zerbitzu mota, zentroaren tamainua edo programetako parte hartzea.

**Eta zein ondorio atera dezakegu azterketa honetatik?**
Laguntzak zehaztean eta zabaltzean balio erantsia dakarten ondorioak atera ditugu, eta horiek laguntza horien plangintza eta jarraipen prozesuaren eraginkortasuna hobetzen lagundu gaitzakete.

**Zelan jarri hori praktikan?**
Adibidez, oinarrizko premiak betetzen dituzten eta adimen desgaitasuna duten pertsonen erabateko inklusioa eta autodeterminazioa bermatzen duten hobekuntzak ezarriz, komunitatea hobeto integratzeko eta erabakiak hobeto hartzeko. Eta antzemandako jardunbide egokien sistematizazioaren bidez, zentro guztietara zabaltzeko.

**Egingo al da honelako beste azterketarik?**
Horrelako ebaluazioak zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta eraginkortasuna ebaluatzeko erabilgarriak diren neurrian, oso interesgarria izango da horrelakoak egiten jarraitzea.

# Presentamos en el Inico nuestro estudio sobre calidad de vida

*Realizado conjuntamente con Fundación EDE, permite mejorar la definición, planificación, despliegue y seguimiento de apoyos destinados a personas con discapacidad intelectual*

**Enrique Aja y Mirko Gerolin, del Departamento Técnico de Gorabide, realizaron un estudio sobre calidad de vida en personas con discapacidad intelectual, conjuntamente con Ainara Canto e Irama Vidorreta, del Servicio de Investigación Social de Fundación EDE. Los resultados fueron presentados en el IX Seminario de Actualización Metodológica en Investigación sobre Discapacidad, organizado por el Instituto de Integración en la Comunidad de la Universidad de Salamanca (Inico).**



Mirko Gerolin y Enrique Aja, profesionales del Departamento Técnico Gorabide

LECTURA FÁCIL

Gorabide y Fundación EDE han hecho un estudio. Querían saber si cada persona con discapacidad intelectual está a gusto con su vida.
Los resultados van a servir para hacer mejores planes de apoyo. También van a servir para mejorar los servicios de Gorabide. Todos los servicios van a aplicar las cosas buenas que han visto.

**¿Cuál era el objetivo del estudio?**
Queríamos identificar los factores personales y contextuales que guardan mayor relación con la calidad de vida de cada persona con discapacidad intelectual, de cara a poder orientar los apoyos que precisa, para mejorar su bienestar y la satisfacción con su propia vida, a través de un plan personalizado de apoyos. Además, el análisis de los datos agregados es una entrada de información para orientar la mejora de los servicios.

**¿Cómo se ha realizado?**
Se ha medido con la escala Gencat la calidad de vida de 232 personas con discapacidad intelectual, mayores de edad, usuarias de centros de día, residencias y viviendas de Gorabide. Para identificar correlaciones entre distintas variables, se han tenido en cuenta factores personales, como grado de discapacidad o necesidad de apoyos, y factores ambientales, como tipo de servicio que utiliza, tamaño del centro o participación en programas.

**¿Y qué indicios podemos extraer?**
Hemos extraído conclusiones que generan valor añadido en la definición y el despliegue de los apoyos, y que también nos pueden servir para mejorar la eficacia de nuestro proceso de planificación y seguimiento de esos apoyos.

**¿Cómo se pasa eso la práctica?**
Por ejemplo, implementando mejoras que trasciendan la satisfacción de las necesidades básicas y que garanticen la plena inclusión y autodeterminación de las personas con discapacidad intelectual, con el objetivo de mejorar su integración en la comunidad y la toma de decisiones. Y sistematizando las buenas prácticas detectadas, para trasladarlas a todos los centros.

**¿Habrá más estudios como éste?**
En la medida en que evaluaciones objetivas como ésta son útiles para mejorar la calidad de los servicios y evaluar su eficacia será muy interesante seguir realizándolas.

## información bbk SAIOA Gorabide informazioa

# Solicitud de estancia temporal por obras

Para acceder a una estancia temporal en la Residencia Ola del Centro Ola BBK por realización de obras importantes, es necesario solicitarla con una antelación mínima de dos meses y aportar presupuesto detallado. Por otro lado, con el objetivo de realizar una distribución más adecuada de las plazas de respiro, la Diputación las adjudicará por 15 días en mes natural, priorizando las solicitudes en base al ISNA, y completará hasta un mes las demandas existentes tras atender todas las solicitudes.

# Obrak direla-eta aldi baterako egonaldia egiteko eskaera

Obra garrantzitsuak direla eta, BBKko Ola egoitzan aldi baterako egoteko, bi hilabete lehenago egin beharko da eskaera, gutxienez, eta aurrekontu xehatua erakutsi beharko da. Beste alde batetik, atseden hartzeko lekuen banaketa egokiagoa izateko, Foru Aldundiak 15 egunez adjudikatuko ditu (hilabete naturalean), eta lehentasuna izango dute ISNA oinarri hartuta; eskaera guztiei erantzun ondoren dauden eskariak hilabetera luzatu ahal izango dira.

# Respiro fin de semana

El plazo para pedir plaza en el servicio de respiro en fin de semana en el CAD Ola, pasa de dos meses a un mes antes de que comience el mes del fin de semana solicitado.

# Atseden asteburuak

Ola Eguneko Zentroan asteburuetan atseden hartzeko zerbitzuan lekua eskatzeko epea bi hilekoa barik hilabetekoa izango da, eskatu den asteburuaren hilabetea hasi aurretik.

# Cambios en ayuda de tercera persona

El baremo que determinaba la necesidad de ayuda de tercera persona ha quedado derogado. Ahora, la concesión se realizará a través del Baremo para la Valoración de la Situación de Dependencia. Las personas a las que se les haya reconocido cualquier grado de dependencia (I, II ó III) a partir del 19 de febrero de 2012, pasan a tener acreditada automáticamente la necesidad de ayuda a tercera persona. Y quienes ya la tenían reconocida antes de esa fecha contiuarán disfrutando de todos los derechos jurídicos de ese reconocimiento.

# Hirugarren pertsona baten laguntza-premian aldaketak

Hirugarren pertsona baten laguntza-premia zehazten duen baremoa indargabe geratu da. Orain, premia mendekotasun-egoera baloratzeko baremoaren bidez emango da. Mendekotasun-egoeraren bat aitortuta dutenek (I, II edo III) 2012ko otsailaren 19tik aurrera automatikoki izango dute egiaztatuta hirugarren pertsonaren laguntza-premia. Egun horren aurretik hirugarren pertsona baten laguntza-premia aitortuta izan dutenek aitorpen horren eskubide juridiko guztiak jasotzen jarraituko dute.

## ATENCIÓN: Si no tienes valorada la dependencia...

**No tener valorada la Situación de Dependencia puede suponer quedarse sin plaza en una residencia, no acceder a estancias temporales o no percibir ciertas prestaciones económicas. Para recibir asesoramiento, contacta con tu trabajadora social de referencia.**

## ERNE: Mendekotasuna baloratu gabe baduzu...

**Mendekotasun-egoera baloratua ez izateak ekar dezake egoitza batean lekurik gabe geratzea eta aldi baterako egonaldirik ezin egin izatea edo prestazio ekonomiko batzuk ezin jaso izatea. Aholkuren bat behar izanez gero, jarri harremanetan zure gizarte-langilearekin.**

Servicio
BBK SAIOA GORABIDE
Zerbitzua
**Tel. 94 453 90 86**

# Taller de habilidades en resolución de conflictos, dirigido a familiares de personas con discapacidad

¿Cómo resolvemos las situaciones conflictivas que nos afectan? ¿Somos capaces de utilizar estrategias adecuadas para resolver conflictos o nos cuesta imaginar vías alternativas para afrontarlos? ¿Nos desgastamos emocionalmente al abordar conflictos cotidianos? ¿Se pueden aprender estrategias más eficaces? ¿Cómo me comunico en una situación de conflicto? Éstas y otras preguntas son el eje central del taller que ofrece en junio el Área de Intervención Familiar, dirigido a familiares de personas con discapacidad intelectual.

La encargada de impartir este taller será Lucía Gorbeña, directora del Centro Universitario de Transformación de Conflictos Geuz, y las sesiones tendrán lugar en tres sábados, de 11:00 a 13:00, el salón de actos de Bolunta (Zabalbide nº1, Bilbao).

**Herramientas y competencias**

Este taller proporcionará a padres, madres y familiares herramientas y competencias para la resolución de conflictos en el entorno familiar, y mejorar así el clima y las relaciones. Para ello, abordará contenidos como "Comprendiendo mejor el conflicto" (8 de junio), "¿Cómo respondemos a los conflictos cotidianos?" (15 de junio) o "Herramientas para una comunicación eficaz" (22 de junio).

**Para inscribirse en el taller, contactar con Diana Cabezas, responsable de Intervención Familiar, en el teléfono 94 453 90 86 o el email dianacabezas@gorabide.com.**



# Gatazkak ebazteko trebetasunak lantzeko tailerra, desgaitasunen bat duten pertsonen familiartekoei zuzenduta

Nola egiten diegu aurre gugan eragina duten egoera gatazkatsuei? Gai al gara egoera gatazkatsuei aurre egiteko ala kostatu egiten zaigu horiei aurre egiteko bide alternatiboak imajinatzea? Nekatu egiten gara emozionalki, eguneroko gatazkei erantzun behar diegunean? Ba al dago estrategia eraginkorragoak ikasterik? Zelan komunikatzen naiz gatazka egoera batean? Galdera horiek eta beste hainbat dira Familian esku hartzeko arloak ekainerako adimen desgaitasuna duten pertsonen familiartekoentzat antolatu duen tailerrean landuko diren kontu nagusiak.

Tailer hau Lucía Gorbeñak emango du, Geuz Gatazka Eraldatzeko Unibetsitate Zentroko zuzendariak, eta saioak hiru larunbatetan izango dira, 11:00etatik 13:00etara Boluntako ekitaldi aretoan (Zabalbide 1, Bilbo).

**Tresnak eta gaitasunak**

Tailerrak tresnak eta gaitasunak emango dizkie aita, ama eta familiartekoei, familia eremuan gatazkak konpontzeko eta, horrela, giroa eta harremanak hobetzeko. Horretarako, hainbat eduki landuko ditu, besteak beste: "Gatazka hobeto ulertu" (ekainaren 8an); "Zelan egiten diegu aurre eguneroko gatazkei?" (ekainaren 15ean); edo "Komunikazio eraginkorrerako tresnak" (ekainaren 22an).

**Tailerrean izena emateko, jarri harremanetan Diana Cabezasekin, Familian Esku Hartzeko arduradunarekin: 94 453 90 86 telefonoan edo dianacabezas@gorabide.com.**

# La Asamblea aprueba la gestión de 2012 y los planes de 2013

*El presidente destacó el cumplimiento de todas las directrices marcadas para el año pasado, con un cierre financiero equilibrado*





El 24 de abril, la Asamblea General de socios y socias de Gorabide aprobó la gestión y los resultados financieros de 2012, los planes y el presupuesto de 2013, así como las claves del tercer plan estratégico y la actualización de cuotas para 2014. Igualmente, se produjo la renovación de la junta directiva, configurando una plancha de catorce personas, con paridad entre hombres y mujeres.

El presidente Hugo Baroja destacó el cumplimiento de directrices marcadas para 2012, como la creación del Plan Estratégico hasta 2015, la ejecución del 96,63% de los planes, el cierre financiero equilibrado, la consecución de la Q de Plata a la calidad, la celebración del 50 aniversario o la creación del servicio de respiro en fin de semana.

### Directrices 2013 y cuotas 2014

De cara a este año, se presentaron las 77 acciones dirigidas a fortalecer y desarrollar alianzas, conseguir impacto en sociedad y participación ciudadana, avanzar en calidad, gestionar el conocimiento, mantener una base social amplia y cohesionada, consolidar la implicación y motivación de profesionales, realizar una gestión económico-financiera sostenible y buscar recursos alternativos. Por su parte, las cuotas de 2014 quedaron establecidas en 67,90 €, tras actualizarlas en base al IPC.

# Batzar Nagusiak 2012ko kudeaketa eta 2013ko egitasmoak onartu ditu

*Presidenteak iazko urterako ezarritako jarraibide guztiak bete zirela aipatu zuen, eta finantza itxiera orekatua izan zela*




Apirilaren 24an, Gorabideko bazkideen batzar nagusiak 2012ko kudeaketa eta finantza emaitzak onartu zituen, bai eta 2013ko planak eta aurrekontua eta hirugarren plan estrategikoaren helburuak eta 2014rako kuoten eguneratzea ere. Era berean, zuzendaritza batzordea berritu zen, hamalau kidek osatzen dutena, emakume eta gizon kopuru berak.

Hugo Baroja presidenteak 2012rako ezarritako jarraibideak bete zirela azpimarratu zuen, bai eta 2015a arteko plan estrategikoaren sorkuntza ere; halaber, planen % 96,63 gauzatu izana, finantza itxiera orekatua, kalitateko zilarrezko Q lortu izana, 50. urteurrena ospatu izana edo asteburuan atseden hartzeko zerbitzua sortu izana aipatu zuen.

### 2013ko jarraibideak eta 2014ko kuotak

Aurten, 77 ekintza aurkeztu dira elkartasuna indartzeko eta garatzeko, gizartean oihartzuna izateko eta herritarren partaidetza lortzeko, kalitatean aurrera egiteko, ezagutza kudeatzeko, gizarte oinarri zabala eta kohesionatua mantentzeko, profesionalen inplikazioa eta motibazioa finkatzeko, ekonomia eta finantza kudeaketa jasangarria egiteko eta baliabide alternatiboak bilatzeko. 2014ko kuotak 67,90 €-tan ezarri ziren, KPI oinarri hartuta eguneratu ondoren.

GORABIDE boletín/aldizkaria berriak

# Charla sobre lectura fácil en Bilbao

**El autogestor Federico Gil y la psicóloga Tania Pereda ofrecerán una charla sobre lectura fácil el lunes 27 de mayo, de 18:30 a 20:00, en el salón de actos de Bolunta (Zabalbide nº 1, Bilbao), destinado a autogestores y a familias.**

El 27 de mayo, a las seis y media de la tarde, hay una charla en Bolunta. Hablarán de lectura fácil. La lectura fácil puede servir para aprender, para acceder a la cultura y para poder participar más en la sociedad.

Muchas personas con discapacidad intelectual no han tenido nunca acceso a la lectura ni a información significativa sobre sus vidas. Por eso, la lectura fácil es un derecho; es información para todo el mundo: fácil de leer y entender. La lectura fácil es una metodología para adaptar textos. Facilita el acceso a la cultura, a unos mejores niveles de bienestar personal, de integración social y de calidad de vida. La lectura fácil nos abre un camino para crear entornos psicológicamente comprensibles para todos, eliminando las barreras para la comprensión, el aprendizaje y la participación.

# Irakurketa errazari buruzko hitzaldia

**Federico Gil autogestoreak eta Tania Pereda psikologoak hitzaldia emango dute irakurketa errazari buruz, maiatzaren 27an, astelehenean, arratsaldeko 18:30etik 20:00etara, Boluntako Ekitaldi aretoan (Zabalbide 1, Bilbo), autogestore eta familiartekoei zuzenduta.**

Maiatzaren 27an, arratsaldeko 6:30etan, Boluntan hitzaldi bat dago. Irakurketa errazaz jardungo dugu. Irakurketa errazaren bidez, ikasteko, kultura ezagutzeko eta gizartean parte hartzeko bidea emango digu.

Adimen desgaitasuna duten pertsona askok ez dira sekula irakurketan murgildu, ez eta beren biziei buruzko informazio garrantzitsuan ere. Hori dela eta, irakurketa erraza eskubidea da. Mundu guztiarentzako informazioa da: irakurterraza eta ulerterraza. Irakurketa erraza testuak egokitzeko metodologia da. Kultura ezagutzeko bidea ematen du, bai eta ongizate pertsonal, gizarteratze eta bizi kalitate hobea izateko ere. Irakurketa errazak bidea irekitzen digu, psikologikoki guztiontzat ulergarriak izango diren espazioak sortzeko, eta, horrela, ulermenerako, ikaskuntzarako eta partaidetzarako oztopoak kentzeko.

## Fe de errores

**En el Berriak de marzo, nos referimos a una exposición en Atxarte, cuando en realidad tuvo lugar en Artzentales.**

## Akats-fedea

**Martxoko Berriaken, Atxarteko erakusketa bat aipatu genuen, baina, Atxarten barik, Artzentalesen izan zen.**

# LABURRAK BREVES

## Nuevo taller para hermanos menores

En junio, tendrá lugar el primer taller para hermanos y hermanas menores y jóvenes, para involucrar a esta parte de la familia en la realidad de las personas con discapacidad intelectual. Será los viernes 7 y 14 de junio (niños y niñas a partir de 6 años) y el viernes 28 de junio (jóvenes hasta 18 años), en horario de 18.00 a 20.00, en Licenciado Poza nº 14, 2º (Bilbao). **Inscripciones:** Tel. 94 453 90 86 dianacabezas@gorabide.com

## Neba-arreba adingabeentzako tailer berria

Ekainean, neba-arreba adingabe eta gazteentzako lehenengo tailerra egingo da, familiarteko horiek adimen-desgaitasuna duten pertsonek bizi duten errealitatean murgiltzeko. Ekainaren 7an eta 14an, ostegunez, izango da 6 urtetik gorako umeentzat, eta ekainaren 28an, ostiralez, 18 urte arteko gazteentzat, 18:00etatik 20:00etara (Poza Lizentziatuaren kalea, 14, Bilbo). **Izena emateko:** Tel. 94 453 90 86 dianacabezas@gorabide.com

## Subvención de Antonio Menchaca

La Fundación Antonio Menchaca subvenciona con 4.000 euros el proyecto de participación de personas usuarias y familias en la definición de los apoyos que precisan.

## Antonio Menchacaren diru-laguntza

Antonio Menchaca Fundazioak 4.000 euroko diru-laguntza ematen du erabiltzaile eta familiek parte hartzeko proiekturako, ematen dituzten laguntzak zehazteko.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a dar apoyo a las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y a sus familias, con la misión de mejorar su calidad de vida desde un compromiso ético y promoviendo una sociedad más justa y solidaria.

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta helburu du Bizkaian adimen desgaitasuna dutenen eta beren familiartekoen bizi-kalitatea hobetzea, konpromiso etikoa oinarri hartuta, eta gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa sustatzen.





# Menús temáticos en la Residencia Sta. Eugenia

Como alternativa al servicio externo de alimentación, las personas usuarias de la Residencia Sta. Eugenia de Getxo organizan menús temáticos una vez al mes. Comenzaron en febrero con comida mexicana (nachos, burritos), siguieron en marzo con cocina francesa (crepes de champiñones, foie con confitura, tabla de quesos y fondue de chocolate con frutas, y en abril han hecho un menú americano (hamburguesas). Pero no sólo se trata de cocinar, sino que la actividad incluye la decoración del comedor, la música, la ropa... todo organizado por las personas que participan.

# Menu tematikoak Sta. Eugenia Egoitzan

Elikaduraren kanpoko zerbitzuaren alternatiba gisa, Getxoko Santa Eugenia egoitzako erabiltzaileek menu tematikoak antolatzen dituzte, hilean behin. Otsailean hasi ziren, eta jateko mexikarra (natxoak, burritoak) egin zuten; martxoan, jateko frantziarra (txanpinoi-krepeak, foie konfiturarekin, gazta-ohola eta fonduetarako txokolatea frutekin); eta apirilean menu amerikarra egin dute (hanburgesak). Baina kontua ez da bakarrik jatekoa prestatzea, jangela atondu, musika jarri eta arropa egokia jantzi ere egin behar da; eta hori guztia partaideek antolatzen dute.

# agenda mayo maiatza



## FORMACIÓN FAMILIAR / FAMILIEN PRESTAKUNTZA

### FAMILIAS DE ESCOLARES / ESKOLA-UMEETAKO FAMILIAK
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna 28 martes / asteartea — Hora / Ordua 18:30

### FAMILIAS DE ADOLESCENTES / NERABEETAKO FAMILIAK
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna 20 lunes / astelehena — Hora / Ordua 18:30

### FAMILIAS DE JÓVENES / GAZTEETAKO FAMILIAK
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna 9 jueves / osteguna — Hora / Ordua 18:30

### FAMILIAS DE ADULTOS/AS / HELDUETAKO FAMILIAK
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna 30 jueves / osteguna — Hora / Ordua 18:30

### FAMILIAS DE CHICAS CON RETT / RETT DUTEN NESKETAKO FAMILIAK
*Residencia Ola / Ola Egoitza*
*Goietxa bidea, 18 - Sondika*
Día / Eguna 18 sábado / larumbata — Hora / Ordua 11:00

## AGRUPACIONES / ELKARTEAK

### BUSTURIALDEA — Comisión / Komisio
*Kultur Etxea. Foru Plaza - Gernika*
Día / Eguna 8 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua 18:30

### DEUSTO-SAN IGNACIO — Junta / Batzorde
*Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto*
Día / Eguna 7 martes / asteartea — Hora / Ordua 19:30

### ERMUA — Junta / Batzorde
*Aldapa, 2-bajo A/ etxabe A - Ermua*
Día / Eguna 6 lunes / astelehena — Hora / Ordua 19:30

### MUNGIALDEA — Comisión / Komisio
*Atxurizubi, 12 - Mungia*
Día / Eguna 7 martes / asteartea — Hora / Ordua 20:00

### SANTURTZI — Comisión / Komisio
*Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi*
Día / Eguna 29 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua 19:00

## AUTOGESTORES / AUTOGESTOREAK

### JÓVENES | GAZTEAK
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna 7 martes / asteartea — Hora / Ordua 18:00

### LOS VETERANOS
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna 22 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua 18:00

### LOS ELEGANTES
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna 29 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua 18:30

### GURE AHOTSA
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna 15 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua 18:30

## DURANGALDEA

CHARLA | HITZALDIA

**Ley de Dependencia**

Arrate Urizarbarrena
Trabajadora social de Gorabide

Día / Eguna 14 martes / asteartea — Hora / Ordua 19:00

Pinondo Etxea (Durango)